



Amaia Arrieta bergararra, Londresko bere dendan. GAUR8

infraganti AMAIA ARRIETA

Londresko banketxe batean zuen lana utzi, eta, lehen haurra izan zuenean, bere denda ireki zuen Amaia Arrietak (Bergara, 1974) «City»-ko Chelsea auzoan. Umeentzat arropa diseinatzeko eta saltzeko hamar urte daramatza, baina bere izena orain gutxi zabaldu da mundu osoan, Kate Middleton Cambridgeko dukesa bezeroa duela jakin denean.

Azken hilabetea «eromena» izan dela aitortzen digu telefonoaren beste alde-tik Amaia Arrieta bergararrak. Kate Middleton Cambridgeko dukesa bere bezeroa dela jakin zenetik, mundu osoko pertsonak jarri dira berekin harremanetan umeentzat diseinatzeko dituen arropatxoak erosteko.

Middleton ama izan da bigarren aldiz orain gutxi, baina aurretik joan ohi zen Arrietarengana, gaur egun bi urte dituen lehen semearentzat jantziak erostera. Kontatzen duenez, barrikarrik joaten da erostera, aldeztu aurretik abisatu gabe, eta, beste pertsona ospetsu batzuek museoa, denda jakin batzuk edo jatetxeak bisitatzen dituztenean egiten denaren kontra, «denda ez dugu beretzat ixten». «Naturaltasuna transmititzen du, bere semeaz beste edozein ama bezala aritzen da hizketan, aholkuak eskatzen ditu, eta bere txanda itxoiten du, edonork bezala. Oso gertukoa da eta bezeroen artean

beste bat gehiago da Kate». Bitxikeriak bitxikeri, Amaia Kids proiektuaren atzean dagoen istorioa xehatzea eskatu diogu, kasualitatearen emaitza baino, lanarena baita.

Gaur egun hiru seme-alaben ama, Londresera orain dela hamabost urte heldu zen senararekin batera, baina, lehenago, ikasle garaian, han eta hemen ibilia da, Oxforden eta Madril-en, besteak beste. Parisen topatu zuen lana, baita maitasuna ere, eta ezkontzean gaur egun familia sortu duten Londresera mugitu ziren. «Banketxe batean egiten nuen lan, baina ordutegiak oso luzeak ziren eta asko bidaiatu beharra nuen», gogoratu du. 2003. urtea zen lehen semeaz haurdun gelditu zenean eta lanean zituen baldintzak amatasunarekin bateragarriak ez zirela ikusita, banketxea uztea erabaki zuen.

Lana utzi bai, baina etxean egoteko modukoa ez dela onartzen du Arrietak. Ezin geldirik egon, baina, zein bide hartu? Profesionalki zer egingo zuen erabaki bitartean, hilabete ba-



«Amaia Kids» dendetako bat, kanpoaldetik. GAUR8

tzuen bueltan erdituko zuen umearen gauzak prestatzen hasi zen. Prozesu horretan piztu zen gaur sendotuta dagoen negozioaren lehen izpia. «Umearentzat arropak Donostian edo Bergaran erosten nituen, aita eta ama ikustera joaten nintzenean aprobetxatzen nuelako», dio. Ohartu zen bueltatzen zenean Londresko lagunek umeen arropari erreparatzen zirela, zela estiloagatik, zela kalitateagatik. Hala, Euskal Herrira bidaiari egi-

ten zuenetan, enkarguak egiten zizkieten. «Londresen umeen arropak edo oso garestiak dira, edo oso merkeak. Ez dago erdibideko zerbait, kalitatea eta estiloa prezio onean eskaintzen dituen. Lagunei arropak eraman eta eraman, azkenean nik neuk hori eskaini zezakeen denda zabaltzeko aukera otu zitzaidan», gogoratu du.

Londres hain handia eta anitzia izanda, deigarria da eskari guztiak asetzeko eskaintzarik ez egotea. Arrietak hala azaltzen du: «Janzteko moduak ezberdinak dira, nahasketa handia dago hemen, bai, baina ez dago estilo definitu bat, nahiko inpersonala da zentzu horretan. Gainera, hainbeste aukera dago ez dakizula nondik nora joan, ezta nondik hasi ere!».

«Ideia okurritu zitzaidanean 'tontamentean' hasi nintzen. Dena nahiko azkar heldu zen; ideia buruan bueltaka nuela etxetik gertu lokal bat aurkitu

Dendan saltzen duen arroparen %75 diseinu propioak dira. Gaur egun bi denda ditu Londresen, Chelsea eta Marylebone auzoetan, eta lantaldea zortzi lagunez osatuta dago

Lehen semeaz haurdun zegoenean izan zuen proiektuaren ideia. Umearentzat Euskal Herrian erositako arropak Londresen jasotzen zituzten laudorioek eman zioten pista



Arropa estilo propioa landu du, Londresen ez zegoen eskaintza mota bat osatuz. GAUR8

nuen Chelsean, eta, azkenean, animatu egin nintzen», gogoratu du.

ARRETA BEREZIA ETA FIDELTASUNA

Hamar urte ondoren ibilbidearen emaitzak ikusita, eta denborak bere formulari arrazoia eman ote dion galdetuta, umil agertzen da, merituen zati handi bat bezeroena dela iritzita. Haien fidelotasuna goraipatzen du, baina, aldi berean, denda eskaintzen duten arreta pertsonalizatua ere badagoela gakoa uste du bergararrak. «Chelsean oso bezero jatorrak ditugu, baina denda eramaten dugun moduan ere asmatu dugula uste dut; bezeroekin denbora asko pasatzen dugu, herrietan egiten den bezala, beren izenez ezagutzen ditugu, umeak hazten ikusten ditugu... Konfiantza handia daukagu».

Bereizgarria da, halaber, eskaintzen duten estilo klasikoa, berezko ukituarekin. Gaur egun

saltzen duten arroparen %75 Amaiak berak diseinatutakoa da. Gonak, galtzak, soinekoak, jertseak... bere sormenetik ateratakoak dira. Estatu espainiarrean ekoitzi eta Londresen saltzen ditu ondoren, baita Internetez ere; beraz, munduko edozein lekutatik eros daitezke bere arropak. Hain justu, Kate Middleton bezero zuela jakin zenetik, besteak beste, Australia, Hong Kong nahiz Zeelanda Berriatik jarri dira berekin harremanetan arropak erosteko.

Inspiratu eta diseinuak egiteko garaian, Londres bera oso aberasgarria dela uste du Arrietak, baita lanagatik nahiz plazeragatik egiten dituen bidaiak ere. Hiru umeen ama izateak ere eragina du, eta, haietatik ikasteaz gain, gertuko seme-alabengandik ere ikasten du: zer janzten duten, zer duten gustuko, zerekin dauden eroso...

«Eta ba al dago ezberdintasunik Euskal Herriko estiloaren

eta bertan duzuenaren artean?», galdegin diogu. Erantzuna pentsatu, eta, segundo batzuen buruan, «zonalde batzuetan, Bilbon edo Donostian esaterako», umeak Amaia Kids estiloaren antzera janzten direla uste duela esan digu. Hala ere, «Euskal Herria nahiko aldatu dela» eransten du, baita «lehengoa, estilo klasikoa, galtzen» ari dela.

Etorkizunari begira, eta dituen erronka berrien inguruan, onartzen du denda asko jarri direla berekin harremanetan elkarlan akordioak proposatzeko; alegia, Amaiak diseinatzen dituen arropak saltzeko. «Ziur aski hortik joango da kontua etorkizunean», aurreratu du, beraz, datozen asteak eta hilabetek lan eta lan igaroko ditu. Atsedena abuztuan hartuko du, urtero Zarautzen familia osoak elkarrekin igarotzen duen oporraldia «barkaezina» delako. •

Oihane Larretxea de la Granja

Ufa...

Saioa Iraola Urkiola

a lau orduko bilkura bat egin dugu Donostian, hitzaldiak, sareak, bile-

rak, kartelak, pegatinak... kontu pila bat izan ditugu langai. Energia handirik gabe jaiki naiz, baina, ki-deek beharbada nabarituko zidaten arren, ez dut adierazi. Ez diet adierazi nola sentitzen naizen, nola nengoen hemen eta orain, ez diet galdetu zer moduz dauden eta haiek ere ez didate galdetu. Bilkuran hitz egin beharrekoez hitz egin eta bukatu dugu. Bagoaz korrika eta presaka beste bilkura batera edo etxera, pilatesera, yagara, psikologora, naturistarengana edo masajistarengana.

«Ez dakit nondik hasi, *sinmas*, hainbestean, hementxe, ongi esan beharko, segi eta segi, *tirando*, besterik gabe, nekatuta...». Azkenaldian inguruan, hainbat militanteren ahotik entzun eta gorputzetik sentitutako adierazpenak dira hauek. Zer moduz galdedin diot kideari eta «ufa...» luze bat erantzun dit. Erantzun hori behin baino gehiagotan entzun eta eman izan dut. Nondik hasi... Askotan nahi edo behar bezainbeste elkarri galdetzen ez diogun galdera izanik, kosta egiten da. Entrenamendu faltagatik esapide hutsetan gelditzen naiz, eta kosta egiten zait aliantza eta elkarlan espazioetan ni naizen guzti horrekin agertzea, adieraztea.

«Zer moduz zaude? Zer moduz gaude?» galdetzea, elkar entzuteko tartea hartzea, elkar babesteko estrategiak lantzea eta gozatzeko eta ongi pasatzeko ekinbideak aurreikustea ere badirelako etorkizun berri bat eraikitzeke pausoak. Bihar gure desioez, egoeraz eta nahiez hitz egitea proposatuko dut bileran, edo dantzatzera irteeta edo potetxo bat hartzea ondo ko tabernan, zuritza eta azeitunak lagun. Amaierarik gabeko gai ordenak itxaron dezake, erronka handiek ere bai, ez ote gara pertsona zoriontsurik gabeko iraultza egiten ari? •